

ANDRÉ MARTINET

(1908-1999)

Donostia, 2000-II-24

1908an Saboian sortua (1908/04/12, Saint-Alban-des-Villards), André Martinet joan den udan, 1999ko uztailearen 23an, hil izan da, 91 urte zituela.

Europako estrukturalismoaren aitzindari gisa ezaguna izan den frantses hizkuntzalari hau joatearekin, euskalaritzak hots handiko lankidea galdu du, eta euskarak adiskide baliosa, ez baitzuen merezimendurik gabe egin ohorezko euskaltzain gure Erakundeak 1984an.

Ingeles hizkuntzan maila goreneko irakasle-titulua gazterik eskuraturik (agrégé zen 1930ean), arras goizik abiatu zen Martinet hizkuntzalaritzako estudioetan. 1931n Société de Linguistique de Paris elkarteko kide egin zuten eta N. Troubetzkoy-ekin gutunezko harremanetan egonik, 1936an argitara eman zuen Pragako eskolaren kondu bere lehen ikerlana (Neutralisation et archiphoneme, Travaux du Cercle linguistique de Prague, 6. lib.). 1937an aurkeztu zituen bere doktore tesiak, biga orduko usaien arabera, biak hizkuntzalaritzako arloan eginak, lehenbizikoak izenburua baitzuen “La gémination consonantique d’origine expressive dans les langues germaniques”, eta besteak, aurrekoaren osagarri zenak, “La phonologie du mot en danois”. Urte hartan izendatu zuten ikerketa-zuzendari Pariseko Ecole pratique des hautes études delako erakundearen, harentzat sortu fonologiako sailean hain zuten.

Garai haietan Europako beste hizkuntzalariekin harremanetan izan zen, Hjemslev-ekin bereziki, eta gerla ondoan, 1946an, Estatu Batuetara joan zen.

Lehenik, nazioarteko hizkuntza laguntzaile baten sortzea helburu zuen egitasmo baten buru izan zen han, eta ondotik, 1947an, R. Jakobson-en bitartez Columbia University-n sartu zen, han egonien baitzen 1955 arte. Urte hartan berean *Word* aldizkariko buru egin zuten eta hala izan zen 13 urtez (1947-1960).

Aldizkari hartan argitara eman zuen, 1950ean, euskal mintzairaz egin zuen bere lehenbiziko artikulua, ene ustez garrantzizkoena eta emankorrena ere gertatuko zena: “De la sonorisation des occlusives initiales du basque” izenburu zuelarik lan hark (*Word*, 6, 1950: 224-233). Ikerketa horrek berehala izan zituen ondorioak Euskal Herrian, K. Mitxelena haren garrantzia on-

doko urtean berean azpimarratu baitzuen euskalariei xeheki aurkeztuz eta eza-gutaraziz (*BSAP*, 1951, 7: 571-582). Lan horrek gorputz emanen zion handik zenbait urteren buruan Martinetek argitaratu zuen *Economie des changements phonétiques: traité de phonologie diachronique* (1955) delako liburuko hamalaugarren kapituluari.

Liburu berean (12. kap.) euskarak gaztelaniazko txistukarien bilakaeran izan zukeen eragina ere aipatu zuen "Structures en contact: le dévoisement des sifflantes en espagnol" izenburuko idazlanean.

Biziki emankorra izan zen handik aitzina Martineten lana hizkuntzalaritza orokorrean, eta izugarriko arraskata izan zuen, Frantzian eta Espainian bereziki 1960an argitara eman zuen *Éléments de linguistique générale* liburu famatuak, hamazazpi hizkuntzatarata itzulia izanen zenak. Orotara hogeitabat liburu argitara emanen zituen Martinetek, horien artean duela zenbait urte idatzi hizkuntzalari oroitzapenak, haren izaera minberatsua agerian uzten dutenak (*Mémoires d'un linguiste*, 1993).

Alderdi teknikoak bazterrean utzirik, Martineten ezaugarri preziagarriena, ene irudiko, argitasuna izan zen. Gutxi aurkituko dira hizkuntzalarien artean ideiak eta azalpenak hain manera garbian eta zehatzean eskaintzen dituztenak. Ordean, ezin uka ideiak hain garbi edukirik, halako zurruntasun bat ere izan zuela teoria kontuetan. Dakigun bezala bazuen Martinetek hizkuntzalaritzaz ikusmolde finkatu bat, eta jarrera guziz arbuizatzailea agertu zuen beti ikusmolde horren oinarriak kordokan ematen zituzten joeren aitzinean. Horrela, arras modu garratzean epaitu zituen, Amerikatik Europara itzultzean, doi-doi agertzen hasi zen hizkuntzalaritza berriaren ausartziak, laster ikuspegi generatibistetan gauzatuko zirenak.

Euskararen alderako interesa ez zuen sekula galdu Martinetek, 1950eko *Word*-eko artikulu haren ondotik. Tovarrekin harremanetan izan zen, haren ikusten izan baitzen 1954an Salamancan. Handik laster ezagutu zuen K. Mitxelena ere, hau ere Salamancan.

Erran gabe doa, begi onez ikusi zituela orduan eta ondotik euskaldun hizkuntzalaririk euskararen fonologia, diakroniaren ikuspegitik azterkatzeko, egiten zituen lanak. Ez da harritzeko, beraz, geroago, 1972an edo, honek hartuko baitzuen Sorbonan, erran nahi baitu Martineten eskolaren bihotzean, urte bat irakasle gisa iragateko gonbita. Martinet ohartuko zen halere Mitxelenak ez zuela arras bat egiten egiten haren ikusmolde antigeratibistetan, eta honen barne-zolako idealismoaren ondorioa ikusiko zuen jarrera hartan.

Lehenxeago, Martineten buruzagitzapean, eta honek bultzaturik eta lagundurik duarik gabe, idatzi zuen G. N'Diaye-k Amairuko euskaraz bere doktore tesia (*Structure du dialecte basque de Maya*, 1970).

1980ko euskalarien biltzarrean parte hartu zuen Martinetek, euskararen fonologiaren historiari bere ideien bilduma eginez (*Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker 1: 59-74. orr.). Handik zenbait urteren buruan, 1992an, Euskal Herriko Unibertsitateko, doctor honoris causa, egin zuten, aitzinetik beste bost unibertsitatetan eginga izan zen bezala. Aurki daiteke gure agerkarian karia hartara K. Rotaetxek Martineten lanez egin zuen aurkezpena, bai eta honak eman zion ihardespena ere (*Euskera* 1992, 3:1253-1256. orr.).

Bi alor bereziki hunki zituen Martinetek euskalaritzan: fonologia diakronikoa eta joskerako zenbait alderdi ergatibitatearen ingurukoak, bereziki.

Gogora dezagun laburzki gai horietaz zer izan zen haren ekarpena.

Martinetek proposatu euskal kontsonanteen azterketa diakronikoa.

Diakroniako fonologian Martinetek euskal kontsonanteen sistema-aldaketa ikertu zuen, aldaketaren joera nagusiak bilatzen zituela. Hiru puntu bereziki aipa daitezke, haren azalpen eta hipotesiak zirela-eta elepide eman dutenak:

– Lehenik, euskararen ikerketa diakronikoa atera zuen konparatibismo genetikoaren mendetik, azpimarratuz zein baliagarri gerta zitekeen erromantze eta latinetikako maileguz azterketa eta barneko eraketa, ikerbide estrukturalak xeheki erabiltzen baziren;

– Bigarrenik, hipotesia egin zuen euskara zaharrean hitz hastapenean heskari ahokarien artean ahotsari edo indarrari zegokion oposaketa bat izan zela, gero desagertu zena;

– Hirugarrenik, proposamena egin zuen garai batez heskari partez sudurkarizatuak izan zirela euskarari, hitz buruetan ezpainkari bat gutienetik.

Lehenbiziko puntuaren garrantzia nabarmendu zuen oroz gainetik Koldo Mitxelena 1950eko *Word*-eko ikerlanaren berri ematean, Martinetek aukeratu jokabideari ‘acertadísima orientación metodológica’ iritzi baitzion.

Bigarren puntua ere, artikulua hartan aipatu zuen Martinetek, eta geroztik ere beti atxiki zuen. Euskarako heskari ahokarien bilakaeraren urratsak honela markatzen zituen: garai batean, latinarekin harremanetan izan aitzin, heskari ahostunak eta ahoskabeak bazituen euskarak, bai bokalen artean, bai hitz hastapenean. Ondotik, ordean, heskari ahoskabeek aspirazioa hartu zuten eta heskari ahostunak, berriz, heskari ahoskabe ezti edo ahulak izan ziren. Garai hartan, dio beti Martinetek, akzentua lehenbiziko silabaren gainean baitzatekeen, horren ondorioz lehen kontsonantearen ahoskeran hestura ahuldu zen aspirazioaren fagoretan, ondorioz, ph-, th- eta kh- heskari aspiratuak h- bihurtu baiziren.

Koldo Mitxelena jarraikiz, euskalari gehienek dudazkotzat eman zuten hipotesi hori haren abantailak eta indarra argi ikusirik ere, zeren oinarri enpirikoa eman diezaioketen datuak gutxi baitira (ik. bereziki Mitxelena, *FHV*:

242-244). Esan behar da halarik ere, eraiketa hau bakarra dela zerbait azalpen ematen diona euskal hiztegiaren berezitasun bati, alegia, aspirazioa bazterrean utzirik, biziki handi dela gure mintzairan bokal batekin hasten diren hitzen portzentaia.



Hirugarren puntua, aurrekoa bezala hipotesi moduan aurkeztua, oraindik ez da argitua izan. Gauza ezaguna da latin hitzetako *b* fonema batzuetan sudurkarizaturik agertzen dela euskaran, hala nola mak(*h*)ila hitzaren kasuan (< lat. *bacilla* (pl.)). Martinetek dio, menturaz, izan zela garai bat non euskaran *lmb/* fonema konplexua ere izan baitzen, hala nola, dienez, Mediterraneoaren inguruan ere gertatu baitzen, iduriz. Kontuak ez dira garbi bereziki go-goan hartzen badugu, horrelako fenomeno baten seinaleak arras urriak direla beste heskarietan.

Horzkariari dagokionaz, halere, lehen pertsonari dagozkion aditzetako indizeak aipatu zituen Martinetek: *n-* eta *-d(a)*, biak erator baitaitezke, ikuspegi horretan, *nd-* gisako forma zahar batetik.

* * *

Subjektuaren nozioak lekurik baduenetz euskal joskeraren azterketan. Euskal joskerako zenbait alderdi ere hunki zituen Martinetek, ergatibitatearen ingurukoak oroz gainetik. Gai horietaz egin zuen lehenbiziko lana 1958an ar-

gitara eman zuen: “La construction ergative et les structures élémentaires de l'énoncé” (*Journal de Psychologie*, 1958: 377-392).

Lan hori euskal gramatikografiaren barnean kokatu behar da, gogoratu bezelaki, garai hartan oraino guztiz onartua zela Euskal Herritik kanpoko hizkuntzalari eta euskalari gehienen artean, euskal aditzaren pasibitatearen teoria.

1956an P. Naërt-ek *Studia linguistica* (1956: 45-49) aldizkarian artikulu bat egin baitzuen piska bat dudatan emanez orduko ikusmolde nagusia, eta proposatuz euskal aditza ekintza izen gisa azterkatua izan zedin, Martinetek lan hari jarraikiz idatzi zuen bere ikerlana. Ez zuen arras onartu Naërten azterbidea; haatik ez zitzaion pasibitatearen teoriagatik kontratu, R. Lafon bezala, eta beste azterbide bat plazaratu zuen, euskararen joskeraren oinarritzko jokabidean funtsatu nahi izan zuena. Harentzat euskararen ez zen subjektua - predikatua sintagmarik, zeren perpausaren oinarria existentzia predikatua baitzen beti: [le basque] construit régulièrement ses énoncés par déterminations successives d'un prédicat d'existence (*Martinet* 1958: 381. o.). Euskararen, zioen orduan Martinetek, izen sintagma absolutiboaren eta aditzaren arteko erlazioa determinatzailearen eta determinatuaren artekoaren parekoa zen. Lafonek erantzun zion Martineten lanari 1960an (*BSLP*, 1960) eta honek berriz bi urte geroago (*Le sujet comme fonction linguistique et l'analyse syntaxique du basque*, *BSLP* 1962: 73-82).

Egia erran, arrakasta guti izan zuen Euskal Herrian proposamen horrek, nahiz orduan agertu eztabaidak jarraipen luzea izanzen zuen Martineten eskolaren barnean, ergatibitatearen inguruko eztabaidetan. Ikusmolde horren aldekoen artean sartu behar genuke C. Tchekhoff, honek *Aux fondements de la syntaxe: l'ergatif*, (1978) bere ikerlanean, beste hizkuntza ergatibo zenbaitekin batean, euskara ere aztertu baitzuen Martineten aztermoldeari eta ereduari jarraikiz.

* * *

Azken hitza.

André Martinet 20. mendearen erdialdeko hizkuntzalaritzaren ordezkaria izan zen eta hizkuntza estrukturalismoak Europan, eta Frantzia bereziki, izan zuen itxura bat, funtzionalismoa deitura pean ezagutu izan zena, hark gorpuztu du.

Jakitate zabalekoa hizkuntza gaietan, arras segur zen azterbide estrukturalistek hizkuntza ikerketan eman zitzaizkien ondorioez. Alde orotako euskalaria izan gabe, euskararen zenbait alderdi hurbiletik ikertu zituen, horretarako baliatuz beste hizkuntzen eta hizkuntza sistemen azterketan ikusia eta ikasia. Euskararen balioaz ongi jabeturik, beti sustatu zituen euskalariak bere lanetan, eta saiatu zen halaber Euskal Herritik kanpoan euskararen gaineko estudioen bultzatza.

Garai haietan Euskal Herriko unibertsitatetik ez baitzen, eta euskarak inongo ezagutza ofizialik ez baitzuen, ez Frantzian, ez Espainian, bere babesa eman zien orduan gure mintzairaren gaineko estudioei. Horregatik ere zor genion esker ona eta ezagutza André Martinet, ohorezko euskaltzain zenari.

* * *

International Auxiliary Language Association deitua zen egitasmo hori bultzatzen zuen erakundeak.

Kargu horretan, ondoan izan zituen, zuzendarikide gisa, elkarren ondotik, M. Swadesh, J. Greenberg, U. Weinreich eta L. Heller.

Honela oroit ziren Martinet eta haren emaztea gertakari hartaz:

André Martinet: "... Nous sommes retournés fréquemment en Espagne au cours des années cinquante. Nous avons, notamment, rencontré Michelena à Salamanque".

Jeanne Martinet: "C'était l'époque où il sortait des geôles franquistes. En public, il fallait tenir sa langue".

André Martinet: ... "En tant que Basque et basquist, il s'intéressait évidemment à ce que j'avais écrit, puisque ma thèse était en gros, que l'espagnol avait été profondément influencé par le basque. Elle m'établissait comme persona grata auprès des linguistes espagnols, franquistes mis à part, pour qui c'était une thèse acceptable, et auprès des Basques pour qui c'était une sorte de revanche". (*Mémoire d'un linguiste*, 127. o.).

Sorbonako hizkuntzalaritzako irakasle katedra (Paris V, 1968tik aitzina) atxiki zuen 1955etik 1979 arte, erran nahi baitu unibertsitatea utzi arte.

Espainian izan zituen jarraitzaileak (Gutiérrez eta Rodríguez bereziki) aipatu ondoan, honela dio Martinetek bere oroitzapenetan: "Les rapports avec Michelena ont été plus fréquents et plus intimes, puisqu'il a enseigné à Paris V. Lui aussi avait un fonds idéaliste. Tous ces gens ont été, à un certain moment, séduits par mon enseignement et, à mon contact, ont mis leur idéalisme en veilleuse. Mais lorsque est apparu le générativisme, s'ils n'y ont pas dit "oui" à cent pour cent, ils y ont retrouvé une atmosphère plus conforme à leur goût. Mon impression est qu'en Espagne mon influence a été plus diffuse que caractérisée. (*Mémoires d'un linguiste*, 128. o.).

Pasibitatearen nozioa aktibo vs pasibo boz oposaketaren arabera aztertzekoa zen Martinetentzat.

Hain zuzen, nola horrelako oposaketarik ez baitzuen ikusten euskararen kasuan, ez zuen bere burua teoria horien aldekoetan ematen. Halere, berak aitortu zuen bezala, ikuspegi konparatibista batean, haren ikusmoldea ez zen biziki urrun pasibitatearen teoriak adierazten zuenetik; ikus gai horretaz 1979an egin artikulua: "Shunting on to Ergative or accusative", Plank-en liburuan (*Ergativity: Toward a Theory of Grammatical Relations*, Academic Press, 1979, 39-43).

Martineten ideiak bultzatzen zituen nazioarteko elkarte bat (Société internationale de linguistique fonctionnelle) sortu zen 1965an. Elkarte horretako ohorezko lehenburu egin zuten 1980an, eta elkartearen agerkariko (*La linguistique*) zuzendaria izan zen sortzetik beretik zendu arte.

Beñat Oihartzabal